INGURUAN AURKEZTUTAKO
MOZIOA**

Iñaki Gamero ondorengo mozioa irakurri du:

GETXO IRRATIAREN ITXIERA

Getxoko Udal Irratiak urteko batez beste 522.759 euroko kostua izan du; hau da, bi milioi, laurogeita hamar euroko gastua legegintzaldi batean.

Kontuan izaten badugu Getxoko irratia astelehenetik ostiralera izaten dela abian, goizeko 7:45etik 8:15era, 30 minutuko emanaldiak 2.133 euroko kostua izaten du (354.000 pezeta) edo 71 euro minutuko.

Egungo herstura garaietan, lotsagarria iruditzen zaigu hogeita hamar minutuko emanaldiaren truke, audientzia gehiegizkoa izan gabe, Udala diru hori ordaintzen aritzea, irratia mantentzearen, Getxoko bizilagunei zergak igo nahi dizkien bitartean.

PRIMERO.- El Pleno de este Ayuntamiento insta al equipo de Gobierno a iniciar un proceso de revisión del proyecto del Kultur Etxea de Romo conversando con los Partidos Políticos y las vecinas y vecinos para obtener un edificio con un mayor respaldo social y político que el actual.

SEGUNDO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

**159.- MOCIÓN DEL GRUPO
MUNICIPAL POPULAR S/EL CIERRE
DE GETXO IRRATIA.**

Iñaki Gamero da lectura a la siguiente moción:

CIERRE DE GETXO IRRATIA

La Radio Municipal de Getxo ha tenido un coste anual/medio de 522.759€, esto es dos millones noventa mil euros en una legislatura.

Si tenemos en cuenta que la radio de Getxo sólo emite de lunes, a viernes y de 7.45 a 8.15 horas de la mañana podemos concluir que cada 30 minutos de emisión cuesta 2.133 euros, (354.000 de las antiguas pesetas) ó 71 euros el minuto.

En momentos de austeridad como los presentes nos resulta vergonzoso que por treinta minutos de emisión, y con una audiencia más bien escasa, este Ayuntamiento se está gastando este dinero en mantener una radio municipal, mientras insiste en subir los impuestos a los vecinos y vecinas de Getxo.

Halaber, harrigarria da, etxeko giza baliabideez gain, kanpoko enpresa bat azpikontratatzea urteko 76.000 euroren truke, irratian minutu labor batzuk betetzeko eta Getxo Berrin kirol-informazio labor batzuk emateko.

Hori guztia dela-eta, Udal Talde Popularrak ondorengo erabaki-proposamena aurkeztu du:

ERABAKI-PROPOSAMENA:

LEHENA.- Udal honetako Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatu nahi dio, gastua aurrezteko irizpideak medio, Getxoko Irratia ixteko eta hango langileak Udaleko beste arlo batzuetan berriz kolokatzeko prozesuari hasiera emateko.

BIGARRENA.- Mozio honen berri ematea Udaleko komunikabideetan.

Arantza Gutierrez andreak, Bildu taldearen izenean, adierazten du izugarria iruditzen zaiela udal-talde batek komunikabide baten itxiera zein erraz eskatzen duen ikustea. Bildu taldea ez dator bat Getxo Irratiaren kudeaketarekin; gogorarazten du hasiera batean irradi irekia izan zela, baina, gero, ixten eta bere zerbitzuak azpikontratatzeko joan dela. Aitortzen du ordu erdi baino ez duela emititzen eta gehienetan, gainera, gazteleraz eta edukiek eta programazioek ez dituztela Getxoko auzotarren interesak ordezkatzen. Irratiko edukiak eta kudeaketa aldatzea planteatzen du, auzotarren errealitatera eta iritzi-aniztasunera hurbilduz, euskararen presentzia gehituz, auzotarren parte-hartzea sustatuz eta abar.

Es también sorprendente que además de los recursos humanos existentes en la casa, se proceda a la subcontratación de una empresa externa por importe de 76.000 euros anuales para incluir unos breves minutos en la radio y unas breves líneas de información deportiva en GetxoBerri.

Por todo ello el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO.- El Pleno de este Ayuntamiento, por criterios de ahorro y austeridad en el gasto, insta al equipo de Gobierno a iniciar un proceso de cierre de la Radio de Getxo y recolocación de sus trabajadores en otras áreas del Ayuntamiento.

SEGUNDO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Arantza Gutiérrez, en nombre de Bildu, manifiesta que les parece terrible la facilidad con la que un grupo municipal pide el cierre de un medio de comunicación. Bildu no está de acuerdo con la gestión de Getxo Irratia, recordando que en su inicio fue una radio abierta que luego se ha ido cerrando y subcontratando sus servicios. Reconoce que sólo emite media hora y que la mayoría en castellano y los contenidos y programaciones no representan los intereses de los vecinos de Getxo. Plantea un cambio de contenidos y de gestión en la radio acercando la misma a la realidad vecinal, a la pluralidad de opiniones, a incrementar la presencia del euskera, a potenciar la participación de los vecinos, etc.

Agustin Ruiz jaunak adierazten du talde sozialistarentzako kostutik harantzago udaleko komunikabideen komunikazio-politika azpimarratu behar dela. Informazioaren kontsumo-ohituretan izandako aldaketak ere kontuan hartu behar dira; horrek irratia zereginari buruz beharrezko hausnarketa egitera eramane behar gaituela. Ondorioz, aldeko botoa emango du gobernu-taldeak horren kudeaketari dagokionez hausnarketa egin dezan.

Josu Loroño jaunak, gobernu-taldearen izenean, adierazten du mozioa manipulazioan edota, bestela, erabateko ezjakintasunean, oinarrituta dagoela. Mozioa erabateko gezur eta manipulazio gisa kalifikatzen du. Bere iritziz difamaziozko jardura da, PP alderdia noraino iris daitekeen adierazten duena, zeinak, 30 urte daramatzen Getxon hauteskondeak irabazi nahian, nahiz eta lortu ez. Alderdi popularrak Getxo Irratiaren gastuaz hitz egitean, Getxo Irratian lan egiteaz gain beste gauza askora dedikatzen diren, oro har, komunikazio-jardueraz arduratzen diren, langileen soldatak eta gizarte segurantzak ere hor sartu dituela adierazten du. Halaber, adierazten du irratiko programazioa Komunikazio-Arloko gainerako zereginekin bateragarria dela eta bere ildo desberdinak azaltzeari ekiten dio. Bukatzen du, esanez, Komunikazio-Arloan gastua doitzeko politikak gauzatu direla eta, zehazki, langileak hartzeko eta irratirako partiden aurreikuspenak murriztu egin direla egoera ekonomikoa eta informazio-joera berriak kontuan hartuta.

Gamero jaunak adierazten du talde popularrak austeritatea eta hartu

Agustín Ruiz manifiesta que para el grupo socialista más allá del coste también hay que incidir sobre la política de comunicación de los medios municipales. Hay que tener en cuenta también los cambios en los hábitos de consumo de información lo que tiene que llevar a una necesaria reflexión sobre el papel de la radio, por lo que votará a favor para que el equipo de gobierno recapacite sobre su gestión.

Josu Loroño, en nombre del equipo de gobierno, manifiesta que la moción está basada en la manipulación y si no es así en una absoluta ignorancia. Califica la moción de mentira total y de manipulación. En su opinión es una actuación difamatoria que indica hasta donde puede llegar el PP que lleva 30 años intentando ganar las elecciones en Getxo sin conseguirlo. Manifiesta que la cuantía a que se refiere el grupo popular de coste de Getxo Irratia incluye sueldos y seguridad social del personal que se dedica a otras muchas más cosas aparte de Getxo Irratia, ya que atiende al conjunto de actividades de comunicación. Manifiesta, asimismo, que la programación de la emisora está compatibilizada con el resto de las labores del Área de Comunicación, que pasa a exponer en sus diferentes líneas. Finaliza indicando que se han llevado también políticas de ajuste de gasto en el Área de Comunicación y concretamente se han reducido las previsiones de incorporación de personal y las partidas para la radio atendiendo a la situación económica y las nuevas tendencias informativas.

El sr. Gamero manifiesta que el grupo popular propone austeridad y medidas

beharreko neurriak proposatzen dituela eta mozioan aurkeztu dituzten datuak irratia funtzionamendu teknikoari eta, batez ere, langileriak eragiten dituen gastuei buruzkoak direla; gastu horietaz gain, 2010eko eta 2011ko gastu zehatz desberdinak ere adierazten dira. Diru-kopuru handiak direla deritzo eta diruak beste arlo batzuetara berresleitzea planteatzen du. Bukatzen du, esanez, gastuak birdoitu behar direla hondorik gabeko zuloan dirua alferrik ez gastatzen saiatuz.

Josu Loroño jaunak adierazten du irratia ez dela 522.000 euro kostatzen mozioan agertzen den bezala; izan ere zenbateko horren %70etik gora irratirako dedikazioa txikia duten langileek osaturiko talde batek eragiten baitu, Komunikazio-arloko beste alor batzuetara era dedikatzen direnena. Gogorarazten du talde popularrak bere garaian irratiko programazioa murriztu izana kritikatu zuela. Talde popularrak Getxo Irratia difamatu baino ez duela egin nahi azpimarratzen du eta azpikontratazioa, batez ere, kiroleko weba eguneratzera mugatzen dela eta web horretan hilean 4.500 lagun sartzen direla.

Gamero jaunak behin eta berriz azpimarratzen du badirela irratiko gastuak eta, ez Komunikazio-Arlokoak, garrantzitsuak direnak, horietako zenbait zehaztuz, eta hobe litzatekeela beste eremuren batean inbertituta.

Arantza Gutierrez andreak, Bildu taldearen izenean, azpimarratzen du garrantzitsuena ez dela kostua, baizik eta, zer-nolako irradi mota nahi den eztabaidatzea; beste hainbeste udaleko komunikabide guztiei dagokienez ere, egungo gobernu-taldeak ezarritako jarduera-mugak gainditu behar baitira

a adoptar y que los datos que ha aportado en la moción se limitan al funcionamiento técnico de la radio y a los gastos que origina sobre todo el personal, a parte de estos gastos se exponen diferentes gastos concretos de los años 2010 y 2011. Estima cuantiosos y plantean reascribir los efectivos a otras áreas. Finaliza indicando que han de reajustarse los gastos intentando no malgastar dinero en un agujero sin fondo.

Josu Loroño insiste en que la radio no cuesta 522.000 euros como indica la moción ya que de ese importe más del 70% son gastos de personal de un equipo cuya dedicación a la radio es pequeña ya que se dedican también a otros ámbitos del área de comunicación. Recuerda que el grupo popular en su momento criticó la reducción de la programación de la radio. Insiste en que el grupo popular pretende difamar a Getxo Irratia e indica que la subcontratación se reduce básicamente en la radio para mantener actualizada la web en materia deportiva, apartado de la web a la que acceden más de 4.500 personas al mes.

El sr. Gamero insiste en que hay gastos de la radio, que no del departamento de Comunicación, importantes detallando varios de ellos, que estarían mejor invertidos en otros ámbitos.

Arantza Gutiérrez, en nombre de Bildu, insiste en que lo más importante no es el costo sino debatir acerca de qué modelo de radio se quiere y lo mismo acerca de todos los medios de comunicación municipales que deben de superar los actuales límites de actuación que impone el equipo de gobierno para ponerse al servicio de

hiritar guztien zerbitzura jartzeko.

Josu Loroño jaunak, gobernu-taldearen izenean, mozioan aurkeztutako datuak errealitatearekin ez datozela bat azpimarratzen du.

Mozioaren bozketa egin ostean, uaktu egin da, PP eta PSE-EEren aldeko 11 botorekin, eta EAJ eta Bilduren aurkako 14 botorekin.

160.- UDAL TALDE POPULARRAK METRO BILBAOREN TARIFAK IGOTZEAREN AURKA AURKEZTUTAKO MOZIOA

Javier Ruizek ondorengo mozioa irakurri du:

METRO BILBAOREN TARIFAK IGOTZEAREN AURKAKO IRITZIA

Urriaren 28an, Garraioen Kontsortzioak onartu zuen Metro Bilbaoren tarifak igotzea, urtarrilaren 1etik aurrera. Igoera desproporzional eta bidegabe hori Kontsortzioan izendatutako ordezkariak babestu zuten, EAJk eta PSE-EEK eskatuta.

Udal Talde Popularraren ustez, ezin da ezer egin gabe geratu era horretako erabakiaren aurrean, ez baitu inolako logikarik; gainera, horrek erakusten du batzuentzat errazagoa dela prezioak edo zergak igotzea, egokitzen den egunaren arabera, estutzen, gastu arrunta murrizten eta baliabide publikoen kudeaketan eraginkorra izaten ahalegindu aurretik.

Langileei eta pentsiodunei gure

toda la ciudadanía.

Josu Loroño, en nombre del equipo de gobierno, insiste en que los datos facilitados en la moción no se corresponden con la realidad.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 11 votos a favor, PP, PSE-EE, 14 votos en contra PNV, Bildu.

160.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/EL RECHAZO A LA SUBIDA DE TARIFAS DE METRO BILBAO.

Javier Ruiz da lectura a la siguiente moción:

RECHAZO A LA SUBIDA DE TARIFAS DE METRO BILBAO

El pasado 28 de octubre se aprobó en el Consorcio de Transportes una subida de precios en las tarifas de Metro Bilbao, aplicable a partir del próximo 1 de enero. Esta subida evidentemente desproporcionada e injustificada, fue apoyada por los representantes nombrados en el Consorcio, a instancias del PNV y del PSE-EE.

Desde el Grupo Municipal Popular, entendemos que no podemos permanecer impasibles ante una decisión como ésta, que carece de cualquier lógica y que viene a demostrar que para algunos es más fácil subir los precios o los impuestos, según el día que toque, antes que hacer un ejercicio de austeridad, de recorte del gasto corriente y de eficiencia en la gestión de los recursos públicos.

Hacer recaer sobre los trabajadores y

lurrean metroa bezalako oinarriko garraiobidea ia %7 igotzeak erakusten du neurri hori bultzatu dutenei ideiak agortu zaizkiela, eta nagikeriaz eta etsipenez jokatzeko dutela.

Hori guztia dela-eta, Udal Talde Popularrak ondorengo erabaki-proposamena aurkeztu du:

ERABAKI-PROPOSAMENA:

LEHENA.- Garraioen Kontsortzioak Metro Bilbaoren prezioak igotzeko urriaren 28an hartutako erabakia ez onartzea.

BIGARRENA.- Garraioen Kontsortzioari eskatzea erabaki hori zuzentzeko eta egun indarrean dauden prezio berak 2012ko ekitaldian izateko.

HIRUGARRENA.- Mozio honen berri ematea Udaleko komunikabideetan.

Javier Ruizek adierazi du metroa garraio publikoaren funtsezko elementua dela, elementu garrantzitsua, eta egindako igoeraren aurka azaldu da. Gogoratu du talde popularra neurri horren aurka agertu zela, desproporzionatua, lineala, izateagatik, ez baitute kontuan hartu erabiltzaileen egoera sozioekonomikoa; soilik nahi izan dute dirua biltzea metroaren gainean egindako kudeaketa txarra estaltzeko. Kudeaketa txar horren aurrean, talde popularrak proposatzen du beharrezkoak ez diren gastuak kentzea eta inbertsioa egitea, ekonomia aktibatzearen. Amaitzeko gehitu du tarifak neurrigabe igotzeak ez duela metroa babesten garraio iraunkor moduan.

Almansa jaunak, talde sozialistaren

pensionistas subidas de hasta un 7% en un medio de transporte básico en nuestro territorio como es el metro, no es sino la demostración del agotamiento de ideas, la inercia y la resignación de quienes han apoyado esta medida.

Por todo ello el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO. Rechazar la subida de tarifas de los precios de Metro Bilbao aprobadas por el Consorcio de Transportes el pasado 28 de octubre.

SEGUNDO. Instar al Consorcio de Transportes a rectificar su decisión ya mantener los precios actualmente vigentes durante el ejercicio 2012.

TERCERO. Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Javier Ruiz indica que el metro es un elemento fundamental e importante del transporte público y critica la subida que se ha realizado, recordando que el grupo popular se opuso a la medida por ser desproporcionada, lineal sin tener en cuenta la situación socio-económica de los usuarios y que únicamente responde a una ansiedad recaudatoria para encubrir la mala gestión del metro. Frente a esa mala gestión el grupo popular plantea la eliminación de los gastos superfluos y la inversión para activar la economía. Finaliza también indicando que el incremento tan desmedido de las tarifas va en contra del apoyo al metro como transporte sostenible.

El sr. Almansa, en nombre del grupo

izenean, adierazi du talde popularraren arrazoibideak gehiago ematen duela Ezker Batua bezalako alderdiarena, eta eskatu dio Madrilgo Komunitateko lehendakariari esateko tarifak jaisteko, Metro Bilbaorako proposatutakoak eta onartutakoak baino garestiagoak izateagatik. Mozioaren populismoa kritikatu du; izan ere, tarifa desberdinak ez ditu bereizten, batzuk ez baitira igo eta besteak KPIren azpitik igo dira. Amaitzeko, gogoratu du, tarifak igo badira ere, Bizkaiko Garraioen Kontsorzioak 2 milioi eurotik gorako gizarte-kostua duela.

Bingen Saituak, Bilduren izenean, adierazi du abstenitu egingo direla, nahiz eta igoera neurrigabea iruditu, KPIren inguruko igoera onartuko bailukete gehienez. Haien ustez, talde popularraren mozioa talde sozialistarekin duen gerran kokatu behar da, eta ikusi beharko da talde popularrak etorkizunean zer esaten duen Mariano Rajoyk proposatutako neurrien inguruan.

Koldo Iturbek, gobernu-taldearen izenean, adierazi du Bizkaiko Garraioen Kontsorzioan Eusko Jaurlaritzako ordezkariak zabala dagoela, eta gobernu horrek talde popularraren babesa duela, eta harriztekoa dela Kontsorzioan babestutako gaiak orain kritikatzeko. Era berean, talde popularraren jarrera kritikatu du, gobernatzen duen lekuetan jarrera gogorragoak onartu baititu (Madrilen bezala). Zerbitzu guztiak ezin dira doakoak izan, eta Metroan ez dira denak berdin igo; gainera, tarifa bonifikatuak badira. Metro Bilbaoko tarifak baxuak dira, Europako metro guztietako batz bestekoarekin alderatuta. Amaitzeko

socialista, manifiesta que el discurso del grupo popular le parece más propio de un partido como Ezker Bauta y le pide que diga a la presidenta de la Comunidad de Madrid que rebaje sus tarifas que son más caras que las propuestas y aprobadas para el Metro Bilbao. Critica el populismo de la moción ya que no distingue las diferentes tarifas, algunas de las cuales no se han incrementado y otras se han incrementado por debajo del IPC. Finaliza recordando que, pese al incremento de tarifas, el Consorcio de Transportes de Bizkaia tiene un coste social de más de 2 millones de euros.

Bingen Saitua, en nombre de Bildu, manifiesta que se van a abstener pese a opinar que la subida les parece desmedida ya que ellos como máximo apoyarían una subida cercana al IPC. Creen que la moción del grupo popular hay que situarla en la guerra que tiene con el grupo socialista y habrá que ver qué plantea en un futuro el grupo popular de las medidas que proponga Mariano Rajoy.

Koldo Iturbe, en nombre del equipo de gobierno, manifiesta que en el Consorcio de Transportes de Bizkaia hay una amplia representación del Gobierno Vasco, gobierno que está apoyado por el grupo popular, y que extrañamente ahora critica cuestiones que en el Consorcio han apoyado. Critica, asimismo, la postura del grupo popular ya que donde gobierna ha adoptado postura más duras como el caso de Madrid. Manifiesta que todos los servicios no pueden ser gratuitos y recuerda que en el Metro no todo ha subido igual y que hay tarifas bonificadas. Manifiesta también que son las tarifas del Metro Bilbao bajas en relación con la media que existe en

adierazi du talde popularra demagogia eta populismoa egiten ari dela, Bizkaiko Garraioen Kontsortzioan Eusko Jaurlaritzako ordezkari izatea bultzatu dutelako.

Javier Ruizek adierazi du talde popularrak beste leku batzuetan egindako jarduerak ez direla erreferentziatzen hartu behar, eta datu osagarriak ez dela ematen. Argitu du talde popularrak Bizkaiko Garraioen Kontsortzioan duen ordezkari bakarrak igoeren aurka bozkatu zuela, alderdi gisa tarifak izoztea proposatzen baitute. Era berean, adierazi du talde sozialistak, Bizkaiko Garraioen Kontsortziora iritsi denetik, zuzendaritzako langileen gastuak gehitu dituela, eta dirutza gastatu duela aurreko kudeatzaileen irazpenarengatik; halaber, beste gastu batzuen gaineko datuak eman ditu: ibilgailu ofizialak, beharrezkoak ez diren azterketak, e.a. Alderdi Sozialistak esaten duen moduan, kudeaketa hain ona izan bada, ez du ulertzen prezioak zergatik ez diren jaisten. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartearen bezalako erakundea ere igoeraren aurka azaldu da, eta Bilduk ere gauza bera egin du Udal ezberdinetan. Amaitzeko, talde sozialistari gogorarazi dio Alderdi Sozialistak, Estatuko gobernuan izan denean, igoera garrantzitsuak egin dituela funtsezko elementuetan; hala nola, argia, ura, gasa, garraioa, e.a.

Mozioaren bozketa egin ostean, ukatu egin da, PPren aldeko 9 botorekin, EAJ eta PSE-EEren aurkako botorekin eta Bilduren 4 abstentzio.

Andrade jauna bilkura-aretotik ateratu da.

todos los metros de Europa. Finaliza manifestando que el grupo popular está haciendo demagogia y populismo ya que han apoyado la representación del Gobierno Vasco en el Consorcio de Transportes de Bizkaia.

Javier Ruiz indica que las actuaciones del grupo popular en otros lugares no son referencia además de que no se aportan datos completos. Aclara que el único representante del grupo popular en el Consorcio de Transportes de Bizkaia votó en contra de las subidas ya que plantean como partido congelar las tarifas. Manifiesta que el Partido Socialista desde que ha llegado al Consorcio de Transportes de Bizkaia ha incrementado los gastos del personal directivo y ha gastado grandes cantidades de dinero por despido de gestores anteriores, aportando datos de gastos de vehículos oficiales, estudios que entiende innecesarios, etc. Manifiesta no entender que si la gestión es tan buena como dice el Partido Socialista no repercute en la bajada de los precios de los billetes. Indica asimismo que un organismo como la Asociación de Consumidores y Usuarios también ha manifestado su oposición a la subida, cuestión que también ha hecho Bildu en diferentes ayuntamientos. Finaliza recordando al grupo socialista que cuando el Partido Socialista ha estado gobernando en el Estado ha realizado subidas importantes en elementos básicos como luz, agua, gas, transportes, etc.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 9 votos a favor del PP, 12 votos en contra PNV, PSE-EE y 4 abstenciones de Bildu.

El sr. Andrade sale del salón de plenos.

**161.- BILDU ALDERDIKO UDAL
TALDE POLITIKOAK
AURKEZTUTAKO MOZIOA:
EUSKARAREN NAZIOARTEKO
EGUNA.**

Maitane Nerekanek mozioa irakurri eta adierazi du Euskararen Eguna medio proposatu dutela, baina edukia urteko egun guztietan aldarrika daitekeela; izan ere, herritarrek euskaraz bizitzeko duten eskubidea partekatzen eta errespetatzen ez duten pertsonentzat da, eta, partekatuaz ere, horren inguruan ahal dutena egiten ez dutenentzat. Amaitzeko, euskaraz bizitzeko aukeraren aldeko diskriminazio positiboa erreklamatu du.

Javier Ruizek, talde popularraren izenean, adierazi du, hizkuntzari dagokionean, haren taldearen ustez hizkuntzak komunikatzeko, erlazionatzeko eta pertsonen arteko zubiak egiteko elementua izan behar duela eta ez bereizten, urruntzen eta harresiak eraikitzen dituen elementua. Euskararen inguruan, politizazio eta lotura ideologikoa sortu da, eta horrek desagertu eta, edonola ere, norbanakoaren atxikimendua bultzatu beharko luke, euskarak ez baitu gaztelaren aurkako elementua izan behar, biak euskal kulturaren ondare izateagatik. Haren ustez, gaztelera ez da ezarritako hizkuntza moduan ikusi behar eta euskara soilik hemengo hizkuntza moduan. Talde popularrak uste du bi hizkuntzak euskal kulturaren barnean sartzen direla; horrela, adostasunean, denbora errealean, errealitate soziologikoan eta borondatean oinarritutako hizkuntza politika bultzatu behar da. Halaber,

**161.- MOCIÓN DEL GRUPO
MUNICIPAL BILDU S/EL DÍA
INTERNACIONAL DEL EUSKERA.**

Maitane Nerekan da lectura a la moción e indica que ésta se plantea con motivo del Día del Euskera pero su contenido podría ser reivindicado todos los días del año, ya que va dirigida a aquellas personas que no comparten ni respetan el derecho a vivir en euskera de los ciudadanos y de los que compartiendo no hacen lo que pueden al respecto. Finaliza reclamando la necesidad de la discriminación positiva a favor de la posibilidad de vivir en euskera.

Javier Ruiz, del grupo popular, manifiesta que en relación a la cuestión lingüística su grupo estima que el idioma debe de ser un elemento de comunicación, de relación, de puentes entre las personas y no un elemento separador, de alejamiento y que levante murallas. Lamenta que en relación al euskera se ha generado una politización y vinculación ideológica que debería desaparecer y potenciar, en todo caso, la adhesión individual ya que el euskera no debe de ser elemento de confrontación con el castellano, pues ambos forman parte del acervo cultural vasco. Estima que debe dejarse de ver al castellano como algo impuesto y solo al euskera como un idioma propio, ya que el grupo popular cree que ambos idiomas son de la cultura vasca y debe de potenciarse una política lingüística que se base en el acuerdo, en los tiempos reales, en la realidad sociológica y en la voluntariedad. Trae también a colación un futuro reto que llega a esta sociedad de la necesidad de aprendizaje de una tercera lengua. El grupo popular estima que ha de avanzarse

aipatu du gizarte honek etorkizuneko beste erronka bat duela; alegia, hirugarren hizkuntza bat ikastea. Talde popularraren ustez, euskararen ezagutzan aurrera egin behar da gaztelerarekiko simetria izateagatik, eta aurrerapenak egin ere egin dira. Baina, erabiltzeari dagokionean, soziologia eta norbanakoaren borondatea errespetatu behar dira. Atxikimen askeko politika irekien aldeko apustua egiten du, eta, mozioan proposamen horiek agertzen ez direnez, ez dute horren aldeko botorik emango.

Luis Almansak, talde sozialistaren izenean, adierazi du Bildu mozioa aurkezten ari dela Udal guztietan, kontuan izan gabe haietako bakoitzeko errealitatea eta, zehazki, Getxoko Udalean euskararen alde egindako politika aktiboak. Getxoko Udaleko aurrekontuaren %3 baino gehiago euskararen aldeko jardueretarako izaten da, kontuan hartu gabe Udal Euskaltegiaren eta Kultur Etxearen bidez egiten diren inbertsioak eta gastuak. Bilduko bozeramaileari adierazi dio, euskarazko aldizkari batean lan egin duen pertsona moduan, jakin behar duela urtero nolako dirulaguntzak jaso dituzten. Era berean, esan dio duela urte asko onartu zela Euskararen Normalizazio Plana, eta, hala eta guztiz ere, mozioan ez dela Getxoko errealitatea batere agertzen. Udalak euskararen aldeko politika aktiboa garatu du, askotan sozialisten babesarekin, gainera, politika horretarako kreditu ekonomikoetako aurrekontuak onartu baitituzte. Era horretan, ez dute mozioa babestuko, gatazka eta norgehiagoka dakarrelako. Haren ustez, hizkuntza politikak adostasunean oinarritu behar du, politika aurrerakoiekiko atxikimendu askean, Euskarako Kontseilu Aholkulariak berak adierazi moduan.

en el conocimiento para alcanzar una simetría con el castellano y que de hecho se han producido avances, pero que en uso hay que respetar la sociología y las voluntades individuales. Apuesta por políticas abiertas de libre adhesión y estima que la moción no refleja esos planteamientos, por lo que no van a apoyarla.

Luis Almansa, en nombre del grupo socialista, indica que Bildu está presentado la moción en todos los ayuntamientos sin darse cuenta la realidad de cada uno de ellos y en concreto sin tener en cuenta la realidad de las políticas activas que en el Ayuntamiento de Getxo se han realizado a favor del euskera, políticas que suponen más de un 3% del presupuesto del Ayuntamiento de Getxo, sin contar con las inversiones y gastos que se realizan a través del Euskaltegi Municipal y el Aula de Cultura. Manifiesta a la portavoz de Bildu que debe conocer, como persona que ha trabajado en una revista en euskera, las subvenciones que anualmente han recibido, también la existencia de un plan de normalización del euskera aprobado hace años y que pese a ello en la moción no se recoge nada de la realidad de Getxo, que ha desarrollado una política activa a favor del euskera, muchas veces con el apoyo de los socialistas, que han posibilitado la aprobación de los presupuestos que recogían los créditos económicos para dicha política. No van a apoyar la moción porque suscita conflicto y confrontación y cree que la política lingüística debe de basarse en el consenso, en la libre adhesión con políticas progresivas tal y como ha manifestao el propio Consejo Asesor del Euskera.

Koldo Iturbe, en nombre del equipo de gobierno, manifiesta su básica coincidencia con la moción pero recuerda que el camino está ya comenzado y

Koldo Iturbek, gobernu-taldearen izenean, adierazi du mozioarekin bat egiten dutela, baina bidea dagoeneko hasita dagoela. Horrela, aldaketa bat egitea proposatu du; alegia, mozioaren hirugarren paragrafoan "hasitako egungo aro politikoan" kentzea, eta 5. puntu hau sartzea: "Udal honek onartzen du euskararen normalkuntza garatu beharreko prozesu luzea dela, eta Getxoko Euskara Zerbitzuak, agente sozialek eta, oro har, herritarrek orain arte burututako lana goraipatu nahi du". Halaber, adierazi du euskara eta gaztelera herri honen hizkuntzak direla, baina bi semeren antzekoak; hots, bata bestea baino txikiagoa dela, eta laguntza handiagoa behar duela. Ondorioz, horrek euskararen aldeko diskriminazio positiboa justifikatzen du.

Maitane Nerekanek, Bilduren izenean, aldaketa onartu du, eta talde popularrari esan dio euskarak ez duela gaztelaren egoera bera, eta, beraz, egindako diskurtsoa alferrikakoa dela. Azpimarratu du Euskal Herria euskararen herria dela, eta, hortaz, lurralde osoan gauza bera bultzatu behar dela. Getxoko kasuari dagokionean, jakin badaki Udalak euskararen alde lan asko egin duela, baina talde sozialistak ez du horrelakorik erakusten, ez baitu onartzen elkarteek, taldeek eta abarrek euskararen alde lan egiteko jarritako ahalegina eta kostua.

Javier Ruizek, talde popularraren izenean, esan du bistakoa dela euskarak gaztelarak baino babes handiagoa behar duela, eta hori Getxon ere gauza jakina dela, baina egoera hobetzen ari da, euskararen ezagutza-datuak gehitzen ari baitira. Talde popularrarentzat ez dago hizkuntza gatazkarik, eta Euskal Herria euskararen eta gaztelaren herria da.

plantea una enmienda transaccional consistente en modificar el tercer párrafo de la moción suprimiendo la expresión "en la actual era política iniciada" e incorporando también un 5º punto en la parte dispositiva que diría que: "Este ayuntamiento, admitiendo que la normalización del euskara es un largo proceso a desarrollar, desea ensalzar la labor llevada a cabo hasta el presente por el Servicio de Euskara de Getxo, por los agentes sociales y por los ciudadanos en general." Indica también que el euskera y castellano son lenguas de este pueblo pero son como dos hijos uno más pequeño que el otro y que el pequeño necesita más ayuda y esto justifica y hace necesaria la discriminación positiva a favor del euskera.

Maitane Nerekan, en nombre de Bildu, admite la transaccional y al grupo popular le indica que el euskera no está en la misma situación que el castellano por lo que no vale el discurso que realiza. Insiste que Euskalherria es euskararen herria y por tanto hay que potenciar lo mismo en todo el territorio. Respecto a lo acontecido en Getxo reconoce que se ha trabajado mucho por el euskera desde el Ayuntamiento pero no ven esa postura en el grupo socialista que no quiere tampoco reconocer el coste y el esfuerzo que ha supuesto trabajar a favor del euskera a las asociaciones, grupos, etc.

Javier Ruiz en nombre del grupo popular reconoce que es evidente que el euskera necesita más apoyo que el castellano y eso es también evidente en Getxo, pero que la situación va mejorando porque los datos de conocimiento van avanzando. Para el grupo popular no existe un conflicto lingüístico y Euskalherria es un país del euskera y el castellano. En relación a la preocupación social que generan los derechos lingüísticos manifiesta que el

Hizkuntza eskubideek sortutako kezka sozialari dagokionean, herritarrek keza oso gutxi aurkeztu dituzte gai horien inguruan Eusko Jaurlaritzako kexen zerbitzuan, eta, Euskobarometroaren azterketan jasotzen denez, gizartea kaltetzen duten arazoan artean, hizkuntzaren gaia ez da agertzen. Euskarazko kanalaren, ETB1en, inguruko datuak ere badaude, eta ez da %3ra iristen. Amaitzeko, berriro esan du, jendearen borondatearen araberakoa dela erabilera, eta debeku eta ezarpenekin ez dela inora iristen. Aurrera adostasunaren bidez egiten da. Maitane Nerekanek berriro esan du Euskal Herria euskararen herria dela, eta herritarrek hizkuntzaren inguruan dituzten kezkak desberdinak izaten direla datu horiek ematen dituen erakundearen arabera. Horrela, Behatokian, esaterako, kexak gehiago dira. ETB1 kanalarik dagokionez, aztertu behar da kateak zer-nolako edukia ematen duen eta egoera horretara nola iritsi den. Amaitzeko, adierazi du inori ez zaiola galarazi gazteleraz hitz egitea, baina euskara ez jakiteak jende asko gazteleraz hitz egitera eraman duela zerbitzu publikoetan, harreman pertsonaletan, dendetan, e.a.

Mozioa bozkatu dute, eta emaitza ondorengo izan da: EAJ eta Bilduren aldeko 14 boto eta PP eta PSE-EEren aurkako 10 boto.

Ondorioz, ondorengo mozioa onartu da:

Pertsonak, hizkuntzak eta kultura guztiak berdinak dira duintasunean. Guztiak behar dute berdintasunezko estatusa eta parekotasunezko egoera, mendetasunik gabe bizitzeko. Horretarako, hizkuntza bakoitzari dagozkion nagusitasuna eta iraunkortasuna bermatu behar zaizkio bere lurralde osoan.

nivel de quejas ciudadanas por estas cuestiones en los servicios de quejas del Gobierno Vasco son ínfimos y también según la relación de problemas que afectan a la sociedad, según se recoge en el estudio del Euskobarómetro, el tema lingüístico no aparece. También da datos del canal en euskera, ETB1, que no llegan al 3%. Finaliza insistiendo en que la voluntad de la gente es la que determina el uso y que con prohibiciones e imposiciones no se llega a ningún lado ya que el avance se produce por el acuerdo y el consenso.

Maitane Nerekan insiste en que Euskalherria es euskararen herria y que los datos de preocupaciones lingüísticas de los ciudadanos varían en función de qué organismo los aporte ya que en Behatokia el nivel de quejas es bastante superior: En relación a ETB1 manifiesta que habría que valorar cuál es el contenido de la cadena y cómo se ha llegado a esa situación. Finaliza indicando que a nadie se le prohíbe hablar en castellano y sin embargo el desconocimiento del euskera por mucha gente impone la utilización del castellano en servicios públicos, relaciones personales, comercios, etc.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor del PNV, Bildu, 10 votos en contra PP, PSE-EE.

En consecuencia es aprobada la siguiente moción:

Tanto las personas como los idiomas y culturas, todas son iguales en dignidad, todas precisan de un status de igualdad y de paridad para poder vivir sin dependencia alguna. En tal sentido, a todo idioma le han de ser garantizadas en su ámbito territorial sus primacía y perdurabilidad como le corresponde.

Euskaraz bizi den Euskal Herria gauza ona da denontzat. Ez du arriskuan jartzen euskaldunaren erdara(k). Ezta gaztelania eta frantsesaren garapen osoa ere euren lurralde historikoetan. Espainiak eta Frantziak eta Euskal Herriko hainbat erakunde eta banakoek ordea, gaztelania eta frantsesa inposatzen dituzte Euskararen Herrian eta trabak jartzen, euskaraz bizitzeko. Traba politikoak, juridikoak, ideologikoak, kulturalak eta soziolinguistikoak.

Un País Vasco que vive en euskara es beneficioso para todos nosotros, no supone un peligro para la(s) lengua(s) que además hable el vascohablante, ni siquiera para el pleno desarrollo del castellano y del francés en sus territorios históricos. En cambio, España y Francia, así como instituciones e individuos del País Vasco imponen el castellano y el francés en el País del Euskara y dificultan la posibilidad de vivir en euskara. Dificultades políticas, jurídicas, ideológicas, culturales y sociolingüísticas.

Euskal Herrian hizkuntz gatazka konpontzea, lehentasunezkoa da. Hitz egin behar da hizkuntz asimilazioaz. Euskal Herrian gertatzen den gaztelania eta frantsesaren hedatze sozial izugarriaz. Bereizi behar dira, zein den hizkuntza horien zati onuragarria, -euskal herritarrentzat, euskaldunentzat eta Euskal Herriarentzat-, eta zein zati asimilagarria. Euskal Herriak du hitza eta erabakia.

En el País Vasco es prioritaria la solución del conflicto lingüístico. Se ha de tratar de la asimilación lingüística, de la ingente difusión social en el País Vasco del castellano y del francés. Ha de distinguirse entre el aspecto beneficioso de ambos idiomas –para los ciudadanos vascos, para los vascohablantes y para el propio País Vasco–, y el aspecto asimilativo. El Pueblo Vasco tiene la palabra y la decisión.

Herritarrok gara euskara erabiltzeko eta Euskal Herri euskalduna berrosatzeko eragile, babesle eta berme; baita Getxon ere. Horrenbestez, ezinbestekoa da herri gogoa indartzea. Euskararen alde egotetik "euskaraz bizi nahi dut"era pentsamendu aldatzea eta erdaraz egitetik "euskaraz egitera" portaera jiratzea eta eguneroko ohitura bihurtzea.

Los ciudadanos somos los agentes, los coadyuvantes y la garantía del uso del euskara y de la reintegración del País Vasco que se exprese en euskara; igualmente en Getxo. Por tanto, es ineludible el fortalecimiento de la voluntad popular, se ha de producir un cambio mental de la posición en pro del euskara al deseo de vivir en euskara, e igualmente de comportamiento, de la expresión en otra lengua a expresarse en euskara; en fin, su transformación en hábito cotidiano.

Beharrezkoa da gaurdanik, gure udalerrri honetan, euskarazko elebitasuna praktikan jartzea eta norabide horretan Udal honek ondorengo konpromisoak hartu eta deialdiak luzatu nahi ditu:

Es preciso que desde el presente se practique el bilingüismo en euskara en nuestro municipio y a tal propósito este Ayuntamiento adopta los siguientes compromisos y formula un llamamiento al efecto:

- | | |
|---|--|
| <p>1.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileen euskalduntzea bultzatu eta bermatzeko.</p> <p>2.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileen lehen hitza beti euskaraz izan dadin.</p> <p>3.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere bame funtzionamendua euskaraz izan dadin.</p> <p>4.- Udal honek udalerrri honetako euskal komunitateak dituen hizkuntza eskubide indibidual eta kolektiboak bermatze aldera, gure herrian eta atal zein arlo ezberdinetan, euskaraz bizitzeko eskubidea helburu duen plangintza integrala garatzeko konpromisoa hartzen du.</p> <p>5.- Udal honek, euskararen normalizazioan egin beharreko bidea luzea dela onartzen badu ere, orain arte Getxoko Euskara Zerbitzuak, giza eragileek eta herritarrok egindako lana goraiatu nahi ditu.</p> | <p>1.- Este Ayuntamiento realizará todo lo que de él dependa para impulsar y garantizar la euskaldunización de los empleados que prestan los servicios públicos.</p> <p>2.- Este Ayuntamiento realizará todo lo que de él dependa para que la primera palabra que expresen los empleados que prestan los servicios públicos sea en euskara.</p> <p>3.- Este Ayuntamiento realizará todo lo que de él dependa para que su funcionamiento interno se exprese en euskara.</p> <p>4.- Este Ayuntamiento, al objeto de garantizar los derechos lingüísticos individuales y colectivos de la comunidad vascohablante de su municipio, adopta el compromiso de desarrollar una planificación integral cuya finalidad sea la posibilidad de vivir en euskara en nuestra localidad en cualesquiera sectores o áreas.</p> <p>5.- Este ayuntamiento, admitiendo que la normalización del euskara es un largo proceso a desarrollar, desea ensalzar la labor llevada a cabo hasta el presente por el Servicio de Euskara de Getxo, por los agentes sociales y por los ciudadanos en general.</p> |
|---|--|

162.- BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXOKO UDALARENTZAKO MEZULARITZA ZERBITZUA EZ KONTRATATZEA.

Maitane Nerekanek ondorengo mozioa irakurri du:

Asko eta asko dira Getxo Udalean

162.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ LA PARALIZACIÓN DE LA CONTRATACIÓN DE LA MENSAJERÍA EXTERNA DEL AYUNTAMIENTO.

Maitane Nerekan da lectura a la siguiente moción:

Son muchos los puestos de trabajo y

azpikontraten bitartez betetzen diren lanpostuak eta zerbitzuak. Kale zein eraikinen garbiketa, T AOA eta etxez-etxe laguntza adibide batzuk besterik ez dira; baina Udal honek bame hartzen dituen arlo zein Organo Autonomo guztietan aurkitu daitezke adibide gehiago. Zerbitzuak merketzearen edo kudeaketa erraztearen izenean egiten da askotan azpi-kontratazioaren alde, nahiz eta Bildutik argi daukagun kasu gehienetan hori ez dela egi osoa.

Bildutik Udal zerbitzuen azpikontratazioa ahalik eta gehien murriztearen alde egiten dugu. Hainbat arrazoi ditugu honetarako. Alde batetik, zenbait kasutan azpi-kontratazioaren bitartez udalak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitateak eta kontrolak behera egiten duelako. Bestetik, kasu askotan ikusi dugu euskaldunon hizkuntza eskubideak ez direla bermatzen udal zerbitzuak azpikontraten esku geratzen direnean; horretan udalak ardura zuzena daukala uste dugu. Gainera, zerbitzuen azpi-kontratazioak, horiek betetzen dituzten langileen lan baldintzen prekarizazioa ekartzen du askotan; horretan ere udal honek ardura zuzena duela uste dugu. Azkenik, lan eskaintza publiko eta duina nabarmen murriztea ekartzen du. Krisi ekonomiko eta sistemiko larria bizi dugun garai honetan **lan prekarizazioaren eta** lan eskaintza publiko eta duinaren aldeko lana lehentasuna izan behar dela uste dugu.

Bildu Getxo Udal Taldetik kontziente gara udal honetan azpi-kontratazioaren eta horrek ekartzen dituen ondorioen kontra egin beharreko lana mardula dela. Bide

